

TOLOSA / Erabiltzaileen fideltasuna saritzea da gure helburua

Liburutegiaren Nazioarteko Eguna izango da bihar, eta horren harira hainbat ekintza egiten ari dira aste osoan zehar: zozketak, opariak eta 'Ipuin Txokoa', besteak beste.

Iñigo Terradillos

Bihar ospatzen den Liburutegiaren Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza burutuko dituzte liburutegietan hauen erabilera sustatzeko helburuarekin. Tolosan ere, ekimenarekin bat eginez, aste osoan zozketak egin dituzte eta opariak banatu dituzte. Susana Larre (Donostia, 1973) Udal Liburutegiaren arduradunak eta Miren Lazkano (Amasa-Villabona, 1968) Liburutegiko laguntzaileak azaldu dute horien helburua zein den, eta Udal Liburutegiaren egungo egoeraz hitz egin dute. Bertan, beraiekin batera, Marilu Mitxelenak eta Iñaki Goikoetxeak Haur Liburutegian, Arantza Lopezek eta Karlos Linazasorok Helduen Liburutegian eta Ane Zaraguetak eta Jon Olaetxeak udako Usabalgo liburutegian egiten dute lan.

Zein helbururekin antolatzen dituzue ekintza horiek?

Susana Larre. Liburutegiaren Eguna dela eta, zerbait xumea egin nahi genuen. Izan ere, gure helburua ez da data zehatz batean liburutegira jendea erakartzea, guk, nolabait, fideltasuna saritu nahi dugu, hau da, maiztasun batekin maileguak hartzen dituen jendea. Horregatik aste guztian zehar maileguan zerbait hartzen dutenak zozketan sartuko dira. Haur Liburutegiaren kasuan, bertako kamiseta eta liburuak zozketatuko ditugu, eta Helduen Liburutegien kasuan, liburuak. Horretaz gain, astean zehar liburutegi txartela atera dutenek oparitxoa jaso dute. Bestalde, pasa den urtean irakurketa gida bat atera genuen, eta aste honetan liburu horiek eskura jarri ditugu.

Irakurzaletasuna sustatzeko ere badituzue ekimenak.

S. L. Bai. Iaz ikusi genuen Ipuin Txokoa ekintzarekin irakurzaletasuna haurrengan bultzatzen dela, eta horregatik, Liburutegiaren Egunarekin bat eginez, astelehenetik hasi ginen martxan jartzen. 3-6 urte bitartekoei eta euren gurasoei zuzendua dago; ipuin kontalariak ipuinak kontatzen ditu, eta gurasoek ikusi eta ikasten dute nola egiten duen. Horretaz gain, zein liburu aukeratu ditzaketen gero etxean hurrei ipuinak kontatzeko baliagarria da. Helduek lagundutako 0-4 urte bitarteko harrentzako espazioan, Txiki Txokoan, jartzen dugu ikusgai ipuinen zerrenda. Ekimen hau irakurketarekin kontzientziatzeko modu bat dela esan daiteke.

Jendeak, orohar, ba al du liburutegia erabiltzeko ohitura?

S. L. Haur Liburutegiak martxa handia du, eta oso pozik gaude. Ikastetxeekin elkarlanean gauza asko egiten ditugu eta horrek ere eragina du. Helduen Liburutegian, bestalde, aldaketa batzuk ari gara egiten eta erabiltzaileen igoera nabaritzen ari gara, beraz, gustura gaude. Gainera,

aurtengo udatik, Tolosako Udal Liburutegiko zerbitzua Usabal kiroldegira ere hedatu dugu. Denera bi hilabeteetan 100 bazkide berri egin ditugu bertan, eta jendeak asko eskertu duen zerbitzua izan da. Pozik gaude honekin, eta hobetzen joango den zerbitzua izango da.

Zertarako erabiltzen du batik bat liburutegia jendeak?

Miren Lazkano. Haur Liburutegia denetarako erabiltzen dela esan daiteke: irakurri, film bat ikusi, etxeko lanak egin, mikroteka zerbitzua erabili, ikastaroak egin... Helduena, berriz, Interneten nabigatzeko, ikasteko, lanak egiteko, informazioa bilatzeko, maileguak egiteko edota filmak hartzeko erabiltzen da, batik bat.

Irakurtzeko ohitura badagoela uste al duzue?

M. L. Bai. Nire ustez, jendeak irakurtzen du. Haur Liburutegin asko irakurtzen dute gaztetxoek. Aranburura gerturatzen diren nerabeek, bestalde, irakurri behar dituzten liburuak irakurtzen dituzte gehien bat, baina helduagoek badutela ohitura ikusten dugu, eta berrikuntzak zeintzuk diren jakiten dute, eta horiengatik galdetzen dizute.